



ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/6. IGELDO
Tfona.: 943-31 30 30 e-posta: infogeldo@euskalerrria.org

ERREPORTAJEA:

TXOTX DENBORALDIA

IGELDON /6-9



AURKIBIDEA

Gabonak eta Kixmi /2

Igeldoko Herri
Kontseiluko gaiak /3

Santa Ageda bezpera /3

Ieltxo kultur elkarte /4

Lezkarri Abesbatza:
Udaberriko kontzertua /4

Egin dezagun bidea /4

Igeldoko Gaztiak /5

Itsas Aurre elkarte /10

Emakumearen Eguna:
Aste Morea egitaraua /12

Itsas Aurre elkarte:
Bilera martxoaren 6an

MENDIZORROTZ

GURASO ELKARTEA:

“Baliabideak lortzea eta familiei
laguntza eskaintzea da gure
zeregina” /11

Kaixo herrikide!!!

Gabonak atzean utzi eta 2012 urteari bi hilabete kendu dizkiogu azkene-koz zure etxean sartu ginenetik. Eta txotx denboraldian bete-beteau gau-

den honetan, gaia lantzea pentsatu dugu Calonge sagardotegia oinarri hartuta. Horrez gain, Mendizorrotz guraso elkartearekin bildu gara. Ohi

bezala, herrian izan diren eta izango diren ekintzen berri ere baduzu ale honetan, Emakumearen Egunaren inguruko ekintzak, besteak beste.

Parte hartze handia eskean eta ongi etorri beroa, Olentzerori

Apirileko azken aurreko asteburuan, haurrentzako irteera antolatu du Kixmik. Apuntatzeko eguna, martxoaren 16a.

Urtero bezala, Kixmi aisialdi taldeak eskea eta Olentzerori ongi etorria antolatu zituen Gabonetan, eta azpimarratu dutenez, oso gustora daude izandako erantzunarekin. Eskeko ensaioan, esaterako, espero zutena baino jende gehiago bildu zela azaldu dute: 23 haur eta 10 guraso. Ensaioaren ondoren, tailerra egin zuten; txikienek dekoratzeko eskulan ezberdinak egin zituzten eta zaharrenek, berriz, Olentzerorentzat ipuina, beraiek egindako ilustrazioekin.

Abenduaren 24 eta 31n, herrian barrena ibili ziren kantari, baserri eta etxe atari guztiak alaituz. Eskean atera ziren haur eta helduen parte hartzea handia izan dela nabarmendu du aisialdi taldeak, batez ere, Eguberri bezperan. Egun horretan Olentzerori egindako ongi etorria ere oso ondo



Haur mordoia gerturatu zen plazara Olentzerori ongi etorria egitera.

atera zela gaineratu du Kixmik, "haurrek gustora hartu zuten Olentzero eta ongi etorri beroa egin zioten". Din din elkarteak prestatutako luntxak ere arrakasta ederra izan zuen.

Behin Gabonak pasata, eskeko afaria egin zuten Gorrienen, eta bertan, 25 lagun bildu ziren. Trikiti eta pandero doinuekin giro ederrean ibili

ziren. Aurten, gainera, gazteez gain, bost guraso ere animatu dira.

Irteera, apirilean

Kixmi orain, apirilaren 20, 21 eta 22an egingo duten irteeran ari da lanean, buru-belarri. Apuntatzeko eguna, martxoaren 16a da (17:00etan, Itsas Aurren). Animatu eta adi egoteko dei egin du.



Aurten eskean atera diren haur eta helduen parte hartzea handia izan da. Ohi bezala, baserri eta etxe atari guztiak alaitu zituzten.

Herri Kontseilua proiektu bat bukatzen ari da eta borobiltzean, batzarra deituko du

Horrez gain, Herri Kontseiluak jakinarazi du herriko talde ezberdinekin biltzen hasiko dela. Bestalde, herritarrei eskatzen die kotxeak ondo aparkatzeko.

Azken Orri Informatibotik hona, Igeldoko Herri kontseiluak hiru gai ibili ditu eskuartean, batez ere. Alde batetik, azaldu du, proiektu edo plan bat bukatzen ari dela eta gauza batzuk falta direla hori borobiltzeko. Borobildu bezain

pronto, Herri Batzarra deituko duela jakinarazi du. Deialdia zabalduko da eguna eta ordua jarritz.

Bestetik, Herri Kontseiluak nabarmendu du, bere nahia pixkanaka herriko talde ezberdinekin

biltzen joatea dela eta lehenbailehen hasiko dela horretan.

Azkenik, herritarrei eskatu nahi die, mesedez, kotxeak ondo aparka ditzatela dagokien espazioetan, "kotxeak aparkatzeko nahiko leku bai baitago".

Eztarri sano ugari, aterik ate oles egiten

Lezkarri abesbatzak antolatuta, santa eskean ibili ziren hainbat herritar Santa Ageda bezperan. Denera, 22 heldu eta 9 haur.

Santa Ageda bezperan, otsailaren 4an, santa eskean ibili ziren Igeldon, hainbat herritar, Lezkarri abesbatzak antolatuta.

Arratsaldeko zazpiak aldera ensaioa egin zuten eta ondoren, herriko tabernetan barrena ibili ziren kantari, makilak gora eta behera astinduz; 22 heldu eta 9 haur, ordu eta erdiz.

Calonge sagardotegian, Mendizorrotz, Txistu eta Txapela tabernetan ibili ziren, giro ederrean. Bapo jan eta edan zuten, tabernarietako ateratako janari eta edariekin. Kopletan, Joxe Dorronsoro (Ondasartekoa), Iñaki Enbil (Arretxekoa) eta Mikel Olasagasti (Harkaitzakoa) aritu ziren. Hasiera batean, paperari begira aritu baziren ere, geroago animatu eta bapateko koplak bota zituzten.

Mantendu beharreko ekintza

Orain arte, Igeldon, santa eskean ateratzeko ohiturarik izan ez arren, azken honek izandako arrakasta ikusita, Lezkarri abesbatzak mantentzeko ekintza bezala hartzeko asmoa azaldu du, hemendik aurrera.



Bidaiak, musika eta argazkilaritza landuko ditu Ieltxok, bi hilabeteotan

Urtarrila eta otsailan zehar, zinea gaitzat hartuta, hainbat ekintza antolatu ditu Ieltxo kultur elkarteak. Hainbat zine jan egin dira eta baita korto lehiaketa ere. Lau korto aurkeztu ziren eta Inauteri egunean erabaki zen korto irabazlea. Ikusleek erabaki zuten eta *Sekokuak* izeneko kortoak irabazi zuen, Ander Zubeldia, Asier Sota, Jon Lizarazu eta Urko Artanoren kortoak, hain zuzen.

Martxoa eta apirilean, berriz, bidaiak, musika eta argazkilaritza landuko dira, besteak beste.

EGITARAUUA:

- Martxoak 4, 11, 18 eta 25ean, bidaia erakusketa, kultur etxean, 19:30etan.
- Martxoak 10ean, kontzertua.
- Argazkilaritza tailerra. Datak eta ordutegia konfirmatzeke.
- Haurrentzat patin rollerra. Eguna zehazteke.
- Apirilak 16an, bidai bat nola antolatu.
- Apirilak 20ean, argazki lehiaketan parte hartzeko azken eguna.
- Apirilak 27tik 29ra, argazki lehiaketako erakusketa eta sari banaketa. Oraindik zehazteke.
- Haurrentzat egun bat argazkiak ateratzera joateko.

Udaberriko kontzertua, larunbatean, Igeldoko elizan

Datorren larunbatean, martxoak 3, Igeldoko Lezkarri abesbatzak eta Alegiko Txintxarri abesbatzak Udaberriko kontzertua eskainiko dute San Pedro elizan iluntzeko 20:00etan. Lezkarri abesbatzako zuzendaria, Carmen De las Cuevas izango da eta Txintxarrikoa berriz, Garbiñe Orbegozo. Txintxarri abesbatzak piano jolea ere izango du, Mariaje Rekondo eta tartean bakarlari lanetan ere ariko dira abesbatzako hainbat kide.

Astero astero, garaiko barazkiak eskuratu nahi?

Herritar batek Kontsumo Taldea osatzeko asmoa duela jakinarazi dio Orri Informatiboari. Azaldu duenez, tenporadako produktuekin, garaiko barazkiekin, 15 euro inguruko saskiak osatuko lituzke astero-astero. Maiatzetik aurrera hasteko izango litzateke. Interesatuek telefono honetara deitu behar dute: 685 734 514. Bezeroek baseritarrarekin zehazteko aukera izango dute zer nahi duten, zer landatzea nahiko luketen... Jende asko animatuz gero, beste pertsona bat ere prest egongo litzateke bere produktuekin saskiak osatzeko.

Kolosala izaten jarrai dezala!

Presoak duintasunez bizi ahal izateko diru bilketa egin da aurten ere, Gabonetan, eta denera, 2.260 euro bildu dira Igeldon.

“Urratsez urrats bidea egiten gabilta. Ekimen ugari egin dira Euskal Herrian zehar euskal preso politikoaren eskubideen eta euren etxeratzearen alde, milaka izan dira ekimen desberdinetan parte hartu duten herritarrak eta gurean ere, Igeldon, ez da erantzun makala eman”. Halaxe azaldu du Igeldoko Egin dezagun bidea ekimenak eta gaineratu du, Gabonetan, presoek duintasunez bizitzeko behar duten elkartasun

ekonomikoa eskatzeko, urteroko gutun bilketa egin dela eta harrera ona izan duela herritarren artean. Denera, 2.260 euro bildu dira.

Horrez gain, urtarrilaren 7an Bilboko manifestazioa autobus bat atera zen Igeldotik, betea. “Guzti horregatik, zuen elkartasuna eta konpromezuagatik, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu. Kolosala izan zen!”, azpimarratu dute.

Herrira mugimendua

“Egoera politiko berri honetan, preso-en gaia egunerokotasunean mahai gainean dagoen honetan eta jendearen inplikazioa gero eta handiagoa den honetan, Egin dezagun bidea ekimenaren ondotik, mugimendu berri baten aurkezpenean egin zen Donostiako Kurasaalean: Herrira mugimendua. Preso eta iheslarien etxeratzea du erronka. Mugimendu berri honen inguruan, datorren hilabetean, batzar bat egingo da Igeldon eta herritar guztiak animatu nahi ditugu parte hartzera... Kolosala izaten jarrai dezan!”, gaineratu dute ekimenetik.



Denera, 23 lagun elkartu ziren Inauterietako bazkarian (bi falta dira argazkian). Arratsaldean jende gehiago ere animatu zen.

Emakumearen Egunarekin bat, Aste Morea antolatu dute gazteek

Emakume Baserritarrek antolatu dute ekintzaz betetako astea. Manifestazioa, pala txapelketa mixtoa, Emakume Afaria eta bideo-foruma izango dira.

Martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna da eta horren harira, Aste Morea antolatu dute gazteek Emakume Baserritarren laguntzarekin. Martxoaren 8tik 11ra bitarte, hau da, ostegunetik igandera, ekintza ezberdinak antolatu dituzte. Esaterako, Emakumearen Egunean, manifestazioa izango da Donostian eta bertara elkarrekin joateko deialdia egin dute. Ostiralean, berriz, pala txapelketa mixtoa eta azkarra antolatu dute. Larunbatean, urteroko Emakume Afaria izango da

eta igandean, bideo-foruma (egitaraua, azken orrian).

Nafarroaren konkistaren inguruko formakuntza saioak, larunbatean
Aurten, 500 urte betetzen dira Gaztelak Nafarroa konkistatu zuela eta gertatutakoaren berri emateko, formakuntza saio batzuk izango dira martxoaren 3an, 19:00etan, Itsas Aurren.

Batzarra, martxoaren 18an
Igeldoko gazteak proiektu bat ari

dira lantzen, taldeari eta lokalari begira eta martxoaren 18an batzarra deitu dute lokalaren funtzioaz eta obraz hitz egiteko. Batzarra 18:00etan da Itsas Aurren.

Apirilaren 28an, urteurren festa
Igeldoko Gaztiak taldea martxan jarri zela urtea bete zen gabon inguruan eta apirilaren 28an urteurren festa antolatuko dute. Egun osoko festa izango da, adin guztietako herritarrei zuzendua, eta gauean kontzertu erakargarriak izango dira. Nabarmentzekoak, Itziarren Semeak ska taldea eta Dj Bull.

Inauterietan giro ederra

Otsailaren 18an Inauteriak ospatu ziren Igeldon. Giro ederrean ibili ziren. Eguerdiko partean poteoa egin zuten herriko taberna ezberdinetan dultzaina eta panderoak lagunduta. Ondoren, Din din elkartean bazkaldu zuten; dena, 23 lagunek, eta arratsaldean giroari eutsi zioten Itsas Aurren. Ieltxok antolatutako Korto Lehiaketa izan zen bertan eta jende ugari gerturatu zen.



Herriko taberna ezberdinetan poteoa egin zuten eguerdiko partean.

ERREPORTAJEA: TXOTX DENBORALDIA IGELDON

Txotx denboraldia martxan da. Apirila bitarte, sagardo ezberdinak probatzeko aukera ederra izango da sagardotegiz sagardotegi. Igeldon ere bada


aukera; Calonge sagardotegian, esaterako. Horrez gain, urtetako ohiturari eutsiz, herrian badira oraindik tolarea martxan duten hainbat baserri.

Urtetako ohitura, bizirik

Urtarrilarekin batera, sagardo denboraldia martxan hasten da, txotx garaia zabalitzen baita. Eta urtetako ohiturari jarraituz, herrian oraindik badira hainbat baserri tolarea martxan jarri eta etxean sagardoa egiten dutenak. Garai batean, Igeldoko baserri gehienetan izango zuten etxeko sagardoa eta bertan lagun arteko bazkari-afari ederrak antolatuko zituzten, bateko eta besteko sagardoak probatuz. Egun, ordea, jaso dugun informazioaren arabera, honako baserri hauetan dute tolarea martxan: Gostei, Zingita, Ganbo Berri, Egioleta eta Murgilen. Aipamen berezia egin beharra dago Biorretako tolareari, nahiz eta martxan ez izan, inguruko tolarerik zaharrena delako. Egurrezko egitura berezi bat dauka.

Bestalde, baziren lehen baserri asko, etxean tolarea ez izan arren, inguruko baserriko tolarean sagarra jo eta etxean kupeleratzen zutenak eta egun ere badira halako kasuak. Esate baterako; Habana, Agiti, Amezti garaikoa, Benta berri azpi, Ganbaetxe, Amezti azpikoa, Amezti goikoa eta Biorreta.


Orri informtiboko ale honetan sagardo kontuak dakarzkigu, garaian garaikoa eutsiz. Baserriz baserri sagardo dastaketa egitea ere ideia bikaina izan zitekeen, benetako erreportai txukuna egite-



Calonge sagardotegiko tolarea.

Aipamen berezia egin beharra dago Biorretako tolareari, nahiz eta martxan ez izan, inguruko tolarerik zaharrena delako.


ko, baina gure gorputzarentzat agian gehiegizkoa. Beraz, sagardo egarriari eta txuleta usaiari jarraituz, herrian dugun Sagardotegira hurbildu gara, Calonge sagardotegira, bertan sagardoa egin, kupeleratu eta txotx denboraldia izaten baitute.



CALONGE SAGARDOTEGIA - Pako Calonge sagardogilea:

"Lehen, mahaiak kupeletan zeuden eta sortzen zen giroak beste xarma bat zuen"

Calonge sagardotegiak hamarkada ugari daramatza martxan. Hirugarren generazioa ari da orain lanean. Urteak pasa dira eta garai berrietara egokitzen jakin du. Orain dela 7 urte obra egin zuten eta txotx denboralditik kanpo ere jatetxe moduan funtzionatzen du. 120 lagunentzako lekua dago. Orri Informatiboa Pako Calongerekin bildu da, berak du orain sagardoa egiteko ardura, Joxe Kruz Calonge aitarekin batera. Gainerako senideek ere sagardotegian egiten dute lan.



Pako Calonge, kupeletan.

Sagardotegia berritua dago, baina urteak dira martxan dagoela. Noiztik dago martxan eta zer ibilbide izan du?

Aitonarekin hasi zen orain dela 70-80 bat urte. Lehen behiak egoten ziren hemen. Familiako tradizioa izan da eta orain hirugarren generazioa ari gara lanean. Orain dela 3 bat urte hasi ginen gu, baina aita oraindik ere hemen ibiltzen da.

Familian daramazue, beraz.

Bai, arreba, Nerea (emaztea), ama, osaba, Erika, aita eta ni aritzen gara. Denak etxeok; Erika da kanpo-

ko bakarra. Sukaldean aritzen gara, ama, Erika, osaba eta ni. Koruko (arreba) eta Nerea zerbitzatzen eta sukaldean. Parrilan, batzuetan ni, beste batzuetan Koruko... txandaka ibiltzen gara denean. Eta hori nahi dugu, baten bat falta bada besteak bere lekua betetzeko gai izatea. Horrela txandakatu egiten gara jai hartzeko. Aita, berriz, txotxean aritzen da.

Itxuraz gain, aldaketarik izan al da sagardotegian, obrarekin?

Lehen kupelak eta mahaiak batera zeuden. Orain kupelak lehengo tokian mantentzen dira eta beste

aldean jantokia jarri dugu. Banatu egin ditugu jateko eta edateko lekua. Obra egitean hala exigitzen zuten. 120 bat lagun sartzen dira orain.

Itxura berezia du. Kursala dirudi...

Gure asmoa zen kupeltegia eta jantokia desberdintzea. Nahi genuen desberdindu zaharra eta berria. Erosoa izatea ere nahi genuen, lanerako eta garbitzeko erraza, posterik gabe... Hori horrela, aukera handirik ez zegoen. Gero, argi genuen, kristalera jarri nahi genuela itsaso aldera, nahiz eta arkitektoak ez nahi izan.

Sagardoa bertan egiten duzue. Zuek ba al duzue sagastirik?

Ez, dena erosi egiten dugu.

Eta Igeldoko sagarrrik erabiltzen al duzue?

Bai. Ekartzen dugu, esaterako, Bekotxeberritik, Murgildik, Marabietatik... urtearen arabera izaten da. Juandegitik ere ekarri izan dugu.

Gainerakoan, nondik ekartzen duzue?

Hemengoari dagokionean, aurten asko Hondarribiatik ekarri dugu, Label sagardoa egiteko. Bestela, Frantziatik, Galiziatik, Asturiasetik... Normalean Frantziatik ekartzen da. Batzuk Txekiar Errepublikatik ere ekartzen dute. Alemaniatik... Ingalaterran ere sagar asko dago.

Labelari dagokionean, aurten sartu zarete.

Bai eta kristoren kontrolak egiten dituzte. Edozein mugimendu egin behar baduzu abisatu egin behar diezu.

Eta zer moduzko sagardoa da?

Hemengo desberdina da. Ahulagoa da, baina gustora nago. Egia esan, hemengo sagardoa egitea ez da berria, jende askok egiten du bere sagastietako sagardoa.

Zenbat sagardo egin duzue? Labelekoa eta orokorrean.

Labelekoa kupel bakarra dugu, 8.500 litro. Denera, berriz, 150.000 litro. Txotxerako eta enboteilatze izango da.

Sagardo eta sagardotegien herriak Astigarraga eta Hernani dira. Hala ere, hona gerturatzen al da

“Pako Calonge:

Hemengo desberdina da.
Ahulagoa da, baina gustora
nago. Labelekoa kupel
bakarra dugu,
8.500 litro. Denera, berriz,
150.000 litro ”

jendea?

Egia da jende gehien mugitzen duten herriak horiek direla, baina ez gara kejatzen. Gertuko jende asko etortzen da hona. Aspalditik bezeroak direnak ere asko etortzen dira.

Obra egin zenutenetik, orain urte guztian duzue irekia.

Sagardoari dagokionean, txotxa Aste Santura arte izaten dugu eta beste urte guztian botilatik edaten da. Jateko berriz, urte guztian izaten

dugu sagardotegi menua eta horrez gain dauzkagu, karta, plater konbinatuak...

Sagardoa Calongetik kanpo ere saltzen duzue?

Tabernetan-eta saltzen ditugu botilak. Espainia aldean ere zerbait saldu izan dugu, baina oso gutxi. Orain esan dute sagardogile batzuk Txina aldera eramaten hasiko direla sagardoa. Egia esan mugitu beharra dago.

Sagarraren zukua sagardotarako bakarrik erabiltzen duzue edo gordetzen duzue binagreak, orujoak... egiteko?

Ez, sagardotarako bakarrik erabiltzen dugu. Orain dela



Pako eta Joxe Kruz Calonge aita-semeak txotxean.



Erika Prieto, Begoña Martikorena eta Nerea Arrillaga.

40 bat urte aitak eraman zuen kanpora orujoa egiteko eta hor daukagu, baina bestela ez. Patza berriz, gauduarentzat ematen dugu, hemen, Igeldon. Hori bai, entzun dut, emakumeentzako makilajeak egiteko-eta ikerketak egiten ari direla!

Asko aldatu al da sagardotegiak eta txotx garaia bizitzeko modua?

Asko. Eta gure kasuan obrarekin, gehiago. Lehen, mahaiak kupeletan zeuden eta hor sortzen zen giroa beste modu batekoa zen. Jendearen artean erlazio gehiago izaten zen eta lagun pila egiten ziren. Makina bat tratu ixten ziren kupel artean txotx egiten. Beste xarma bat zuen.

Teknologia berriekin lan egiteko modua ere aldatuko zen.

Gauzak asko erraztu dira. Orain, sagardoa egiteko aita eta ni nahikoak gara. Lehen 12 bat lagun aritzen ginen. Jende gutxiagorekin eta denbora erdian egiten da orain lana. Izerdirik bota gabe gainera.

Labelean bakarrik ez, aurten Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko juntan ere sartu zara.

Ordezko nengoen eta batek utzi egin behar zuela eta

“Pako Calonge:

Gureak, Labelak ziurtatzen du sagardo hori bertako sagarrarekin bakarrik egina dagoela. Beraiek diotena da sagardorik onenaren alde ari direla”

tokatu egin zait. Lau urterako izango da eta orain pixkanaka ikasten ari naiz funtzionamendua.

Ezin aipatu gabe utzi sagardogileen artean duzuen saltsa, Labela eta Gorenak dela eta...

Saltsa ez. Kontua da lehen 60tik gora sagardogile geundela elkartean eta batzuk ateratzea erabaki dutela beste bide bat hartuta. Azkenean bakoitzak bere enpresaren

alde egiten du. Bakoitzak ikusten du zer komentatu zaion.

Labela zertifikatua da, Gorenak marka litzateke, ezta?

Hori da. Gureak, Labelak ziurtatzen du sagardo hori bertako sagarrarekin bakarrik egina dagoela. Eta horretarako kontrol pila bat egiten dizkigute. Beraiek (Gorenak) diotena da sagardorik onenaren alde ari direla lanean, hemengo sagarrarekin izan edo kanpokoarekin.

Nik uste dut denborarekin berriz denak elkartuko garela. Orain arte gauza guztiak elkarrekin egin ditugu eta hala izan behar du. Gainera, sagardogile batzuk badira Gorenak-en alde egin dutenak eta elkartean jarraitzen dutenak.

Desanexioaren bidean, lanerako deia

Itsas Aurre elkarteak lanerako deialdia egin du desanexioaren bidean aurrera egiteko. Foru Aldundiak 2011 urtean emandako ezetzari helegitea jarri ondoren, urtebete inguruan epaia aterako denaren susmoa dute Itsas Aurre elkarteko kideek. Guztiaren berri emateko, bilera izango da martxoaren 6an.

Urte luzeetako borrokak fase ezberdin asko izan ditu. Egun, Foru Aldundiak 2011 urtean emandako ezetzari helegitea jarri ondoren, adituen txosten eta probak aurkezteko epea bukatzen ari da eta deliberamendu fasean sartuko da prozesua. Urtebete inguruan epaia aterako denaren susmoa dute Itsas Aurre elkarteko kideek eta aldekoa izango ez balitz, Auzitegi Gorenean helegitea jartzeko aukera izango litzateke. Berrito ere epaitegietako garaia izan arren lanerako deialdia luzatu dute Itsas Aurrekoek desanexioaren bidean aurrera egiteko. Horretarako eta informazio zabalagoa jasotzeko, **martxoaren 6an bilera izango da Kultur Etxean, arratsaldeko 20:00etan.**

Desanexio prozesua gogoratu
1992 urtean igeldotarren artean egonezin eta kezka ugari zegoen:

Donostiako udalaren erantzun eskasa eta etengabeko oztupoak, zerbitzu eskasia, errepideen mantenu duinerako zailtasunak, hilerria, eskola, etxebizitza beharraren aurrean borondate politiko eza, 1991 urtean deszentralizazio prozesurako organoa martxan jartzearen aurrean Donostiako udalaren jarrera negatiboa... Egoera honen aurrean Igeldo bizirik mantentzeko bide bakarra desanexioa zela ikusi zen.

Epaiak aldekoa izango ez balitz, Auzitegi Gorenean helegitea jartzeko aukera izango litzateke. Lanerako deialdia luzatu dute Itsas Aurreko kideek, desanexioaren bidean.

1994ko azaroaren 27an burututako erreferendumean ere herritarren bozken %60ak halaxe eskatu zuten desanexioaren alde bozkatuz. Foru Aldundiak finantzatuta burututako ikerketek ere, garbi zioten legeak eskatutako guztia betetzen zela. Hau guztiari gehitzeko beste baldintzetako bat herritarren gehiengoa alde egotearena zen; hasieran %54ak sinatu zuten eta gerora %62,5era iritsi zen. Hori horrela izanda, Itsas Aurre elkarteak sortu zen espediente bat bete eta herritarren gehiengoak erreferendumean eskatutakoa aurrera eramateko.

Nahaspila juridikoa
Desanexiorako eskaera aurkeztu

ostean, Batzar Nagusiek Foru Arau berria onartu zuten, bertan baldintza gogorragoak ezarri; horien artean 2.500eko biztanle kopuru minimoa eskatuz. Hala eta guztiz ere, Donostiako udalak Igeldori arau berri hau aplikatzea erabaki zuen, jakinaren gainean egonda ezinezkoa zela Igeldoko prozesua lehenagotik martxan jarria zegoelako. Honek guztiak espediente geldiarazi zuen.

Itsas Aurrek bi helegite aurkeztu eta irabazi zituen TSJPVn: Donostiako udalaren erabakiaren kontra bata eta Foru Arauaren aurka bestea. Donostiako udalak espediente bideratu behar izan zuen eta Batzar Nagusien esku utzi zuen kasua. Bi instituzioek, TSJPVk Igeldoren alde ateratako sententziei helegitea jarri zieten Auzitegi Gorenean.

Auzitegi Gorenak epaia atera zuen: Foru Araua indargabetua gelditu zen. Honen aurrean Foru Aldundiak beste lege bat atera zuen eta Itsas Aurrek (Itziaroko Segregazioaren aldeko elkartearekin batera) beste behin ere helegitea aurkeztu zuen.

Denbora luze zihoala ikusita, ikerketa sozio-ekonomikoak eguneratzea erabaki zuen Itsas Aurre elkarteak, ondoren Foru Aldundia presionatzeko. Ikerketa berri hauek aurkeztuta 2007an Foru Aldundian aldaketa politikoa izan zen eta bi urte atzeratu zuen kasua, azkenik, 2011n desanexio eskaerari ezezkoa emanaz. Erabaki guztiz politiko honen aurrean, berrito ere Foru Aldundiaren aurkako helegitea sartu zen.

"Baliabideak lortzea eta familiei laguntza eskaintzea da gure zeregina"

Mendizorrotz guraso elkarteak, Igeldoko eskolako gurasoek osatzen dute eta jada hogeitun urte baino gehiago daramatza lanean.

Eskolako guraso elkarteak beste zenbait funtzioen artean, baliabideak lortzea du helburu, horretarako lortu daitezkeen diru-laguntzen bidez, gurasoek antolatutako ekintzekin, zein ikasleengandik datozen kuotei esker. Horren ondorioz, esate baterako, autobusa ordaintzea lortzen da (igerilekura edo txangoetara joateko adibidez), gabon aurreko azken egunean eta ikasturte amaieran prestatzen diren bazkariak antolatzen ditu, haurtzaindegi zerbitzua ematea ere ahalbidetzen du (lanera goiz joan behar diren familientzat), ikasturte amaieran haurrak eskolan goizez bakarrik daudenean, arratsaldetako eskolaz kanpoko ekintzak antolatzen dira, eta eskolarako haurrek beharrezko duten materiala ere erosten da.

Zuzendaritza batzorde berria

Guraso elkarteak Zuzendaritza Batzordea du eta hau 3 karguk osatzen dute. Lehendakaria, Diruzaina eta Idazkaria. 3 urtetako betebeharrak dira honako kargu hauek eta egun Helena Modrego da Lehendakaria, Ana Letamendia diruzaina eta Itsaso Garmendia idazkaria. 2012ko urtarrian osatu zen zuzendaritza batzorde berria eta ekaina bitartean aurretik zegoen zuzendaritza batzordeko kideen laguntza izango dute kontuak eguneratzeko. Datorren ikasturtean bakarrik ariko dira eta hirugarrenean (eta azken urtean) berriz sortuko den batzorde berriari lagunduko die.

Bestalde, Batzorde Eragile bat ere badago, batzorde honetako kideek zenbait gai jorratzen dituzte garaian garaikoak edota finkoagoak, esate baterako, Eskola Txikiak, Herri Kon-



Ainhoa Ezeiza, Maider Zubillaga, Ana Letamendia, Helena Modrego, Arantxa Azpillaga eta Itsaso Garmendia.

tseilua, Ieltxo edo eta Kixmirekin harremana dutenak. Batzorde eragilea egun osatzen dutenak, Arantxa Azpillaga, Ainhoa Ezeiza eta Maider Zubillaga dira. Eskola Txikiak taldean, berriz, Arantxa Txintxurreta eta Amaia Agirre ari dira lanean. Eta bide batez gogorarazi dute, aurtun 25. urteurrena ospatuko dela Larraulen. Orain dela 25 urte egin zen aurreneko eskola txikiaren festa. 2006an, Igeldon izan zen.

Urtean hiru bilera

Urtean ohiko hiru bilera egiten dituzte (ikasturte hasieran, tartean eta bukaeran); familiei informazioa helarazteko, eskolako gaietaz buruz eztabaizatzeko eta denen artean erabakiak hartzeko. Hala ere, gai garrantzitsuren bat bada esku artean, ez ohiko bilerak deitzen dituzte. Bilera aurretik, familiei gai zerrenda helarazten diete jakinaren gainean egon daitezten. Gainera, bilera garaian, guraso elkarteak ordaintzen duen haurtzaindegi zerbitzua ere izaten dute. Urteko hiru bilerak hauetatik lan talderen bat osatzen bada, gaien bat sakonago aztertzeko,

aparteko bilerak egiten dituzte.

Ikasturte honetarako proiektuak

Ikasturte honetarako zenbait gai dituzte lehentasunezkoak. Goizetan eskaintzen diren haurtzaindegi zerbitzua finantzatzeko diru laguntzaren bat lortu nahi dute. Eskolako jangelaren inguruan ere ari dira proiekturen bat lantzen, eskolan bertan sukaldea izatea lortu nahi baitute. Bestalde, Igeldo ezagutzeko proiektua eskola barnean bultzatu eta landu nahi dute.

Guraso eta irakasleak elkarlanean

Igeldoko eskola, nekazal giroko eskola publiko eta euskalduna da, hau da, Eskola Txikia. Eskola txikia izateak bere ezaugarri bereziak ditu, esate baterako, talde txikiko gelak osatzen direla eta gela berean adin ezberdineko haurrak nahasten direla. Orokorrean eskola txikia izanik haur, guraso eta irakasleen artean harreman estua osatzen dute eta ondorioz guraso eta irakasleen artean elkarlana egiteko aukerak zabaltzen dira, eskolaren funtzionamendu egokiagoa lortzeko.

Aste Morea



Martxoak 8 - Emakumearen Nazioarteko Eguna

Martxoak 8, osteguna:

MANIFA Donostian.
Elkarrekin manifara,
18:30etan plazan.

Martxoak 9, ostirala:

PALA txapelketa mixtoa eta
azkarra, 19:30etan frontoian
(bertan apuntatu). Pintxoak
eta edaria ere izango dira.

Martxoak 10, larunbata:

EMAKUME AFARIA, Nicols
Hoteleko jatetxean.
20:30etan plazan edo



Antolatzaileak: Igeldoko Gaztiak eta Emakume Baserritarrak

21:00etan Nicols-en.

Martxoak 11, igandea:

BIDEO-FORUMA. Ikusi,
ikasi eta eztabaidatu.
18:30etan kultur etxean.

**Afarira joateko,
izen ematea: Txapela
tabernan edo 645 735 762*

**ANIMATU ETA PARTE
HARTU!!!**



**Igeldoko
Herri
Kontseilua**

Laguntzailea:

